

**DIRU-BILKETAREN PROZEDURA ETETEKO ABALAREN**  
**EREDUA**

Abal-emaile honek: .....(bankua, aurrezki-kutxa edo beste);  
ordezkaría: ..... jauna/andrea, zeinek,  
aski ahalmen baitu egintza honetan erakunde hori horretara behartzeko, Gasteizko Udaleko  
Idazkaritzan / Gordailu Kutxa Orokorrean / Estatuaren idazkariak (noiz:) .....  
askietsitako ahalordea dela medio.

**ABALA EMATEN DIO**

Abal-hartzaile honi: ..... —IFZ/NAN.....—,  
—abalaren zenbatekoa: .....—, Gasteizko Udalaren aurrean, honako hau  
kobratzeko prozeduraren etenaldia bermatzeko: (ordainagiri- edo likidazio-zenbakia:) .....;  
kontzeptua: ..... (zerga, tasa edo besteren izena).

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean 222.1 artikuluan  
aurreikusitakoaren ildotik, abal honek kontrakarrean jarritako egintzaren zenbatekoa estaltzen  
du, baita eteteak sortzen dituen berandutze-interesak eta eteteko eskatu den unean  
ezartzekoak ziren gainordainak ere.

Abalaren kontra jotzeko beharrik izanez gero —horren bitartez emandako bermea  
gauzatzeko—, abala eman duen entitatea behartuta egongo da zortzi eguneko epean,  
jakinarazpena helarazten zaion egunetik kontatuta, bermatutako kopuru osoa edo dena  
delako zatia Gasteizko Udalaren Diruzaintzan eskudirutan sartzera.

Entitate abal-emaileak Gasteizko Udalaren aurrean erantzungo du adierazitako horretaz,  
modu solidarioan eta horretara behartuaren baldintza beretan, eta berariaz uko egiten dio  
hobari orori, eta, bereziki, Kode Zibilaren 1830. artikuluan jasota dagoen eskusio-eskubideari.

Mugarik gabeko iraupenarekin ematen da abal hau, eta erreklamazio ekonomiko  
administratiboa ebatzi arte izango ditu ondorioak, edo, halakorik izanez gero,  
administrazioarekiko auzi-bidea agortu arte.

Udalak ezeztatzea baimentzen duen arte izango du indarra abal honek.

Abalen Erregistroko inskripzio-zenbakia:

.....  
(eguna eta lekua)

(Izenpea)

(ahalduna)

ORDEZKAPENAREN EGIAZTAPENA: ..... (Gordailu Kutxa Orokorra, Estatuaren abokatua, udal idazkaría).  
Probintzia: ..... Data: ..... Zenbakia edo kodea: .....